

...eta

Kitto!

836 zkia.
2013-11-15

**Oihala
gora!!!**

36.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

EIBARKO UDALA

EIBAR - 2013

OTSAILA - MARTXOA

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Iribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMO, ADESLAS, SANTA LUCIA,
FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua



ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com

ASTEAN ESANAK

"Karguari uko eginez, Ratzingerrek ez du kontuan izan boterea, prestigioa edo dirua; ez du politikarien moduan jokatu. Aita Santu berri guztiakin nahi izaten da Elizaren gobernu konpontzea, baina oso zaila da kuria aldatzea"

(ALBERTO TORRES, JESUITA)

"EAEko 60 urtetik gorako jendearen erdiak familiaren laguntza bakarrik jasotzen du eta %20ak erabiltzen ditu laguntza sozialak -Espainian azken hau ez da %5era heltzen. Behargin inmigranteek pisu handia dute hor"

(ENEKOTZ ETXEZARRETA, EKONOMISTA)

"Apustu egingo nuke aurten ere Franco eta Fidelen karikaturrek egiten dituen artista horren lana izango dela hedabideek gehien aterako dutena. Arcok badu alde txotxolo bat, jendea nahastu eta inori onik egiten ez diona"

(ASIER MENDIZABAL, ARTISTA)

"Alfonso Guerrak zioen Adolfo Suarez Missisipiko arrakero bat zela, baina benetako orduan, Tejero Kongresuan sartu zenean, harek arriskuari aurpegia ematen zion bitartean, Guerra aulki azpian ezkutatu zen"

(MANUEL VICENT, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JAKIÑA.- Noski, erregular. "Hori ez dok ba haren semia izango? Jakiña bai!"

JAKIÑIAN.- Nahita, jakinaren gainean. "Jakiñian juan zan zer erantzun hartuko eban zeken haregandik".

JAKIÑIAN EGON.- Aurretiaz jakin, jakinaren gainean egon. Gaztelarazko 'estar sobre aviso'. "Jakiñian eguan, behin aldaparia hasitta tiraka hasiko zala".

JAKIÑIAN IPIÑI.- Abisatu, aditzen eman. "Partidua ordu erdi lehenago hasiko dala jakiñian ipintzia ahaztu egin jata".

eskutitzak

APALATEGIKO BIHURGUNEN AUTO ISTRIPUAK

Joan den astelehenean auto-istripua izan nuen Apalategiko bihurgunean (Maltzaga-Azitaín artean dagoena), kontrako norabidean zetorren auto bateko gidari batek kontrola galdu eta nire furgoneta kontra jo zuenean, tartean nire aurretik zihoran taxista bati ere aldamentean jo eta gero. Gidari guztiak ondo gaude eta ez zaigu ezer larririk gertatu. Baina lerro hauek idazten ditut gure istripua, zoritxarrez, Apalategiko gune horretan ez delako bakarria izan; astelehen horretan bertan, goizean, beste kolpe bat izan zen. Bertatik egunero pasatzen garen gidariok ongi dakigu, gainera, urtean zehar dozena bat auto istripu gertatzen direla gune arris-

kutsu horretan. Hala bada, dagokionari -izan Diputazioa, Trafiko Saila edota beste arduradunen batzera eskatuko nioke:

Behingoz neurriak hartu dezatela gune hori eta halako beste batzuk trafiko puntu beltzak izaten jarraitu ez dezaten. Irlandan, adibidez, asfalto berezia botatzen dute euriari aurre egiteko. Horretaz gain, gidariok ere neurriak hartu behar ditugu euria egiten duenean: abiadura murriztu eta arreta handitu.

Amaitzeko, besarkada handi bat bidali nahi nieke istripuan kaltetuak izan ginen guztioi. Berriro jaio garela ospatu beharko dugu!

EDU URIBE

OTSAILAK 22: AZKEN OSTIRALA

Badator berriro ere **Azken Ostirala**, Euskal Preso Politiko eta Iheslarien eskubideen aldeko eguna; eta oraingoan, gainera, data oso garrantzitsu baten aurrean gaude, martxoaren 20an Estraburgetako Epaitegiko Gela Gorenak Parot doktrinarekiko erabaki irmoa hartuko baitu.

Horren aurrean, Eibarko herritarrok dugun iritzia argi eta garbi azaltzeko, otsailaren 22an, Untzagan, 19.30etan Gizakatea osatuko dugu, eta bertan parte hartzeko deialdia egiten dugu.

Denon artean lortuko dugu.

EIBARKO HERRIRA

TOKILLA GALDUTA

Joan den barixakuan, kaldereroen kalejiran, artilezko tokilla beltza agertu zen Errebal inguruan. Jabea... eta kitto! Euskara Elkartearen bulegotik pasa daiteke jasotzera (Urkizu 11, solairuartea).

ERREDAKZIOA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

kutxa gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Arantza Lasa

Toda Aznarez Sanchez de Larraun eta Fortunez (1)

Hamargarren gizaldixaren hasieran ximenotarren dinastixia kokatuko da Iruñako erreñuan. Antso Garteiz I.a da erregia eta **Toda Aznarez** enekotarrarekin dago ezkontuta. Andra-gizonen asmo politikak bat egiten dabe: Iruña euskal hitzunaren lurraldiak hedatzia penintsulan zihar eta, bittartian, Kordobako Kalifatuaren nagusitasunari aurre egiñ. 925. urtian erregia hiltzen danián, **Toda andria** erretorde aukeratua izan zan semia gazteegixa zalako, baiña laster monarkixiaren buru moduan ikusiko dogu. Estrategia fiña zentzu guztietan, diplomaziaren artia erabilli eban erreñua zabaltzeko. Ordurako, eta ezkontzako politikia bide, Todaren bost alabak eta semia lotuta dagoz ekialdeko erresumekin. Esate baterako, Gartzia semiak Aragoiko Andregoto Galindezekin ezkontza hitzarmena egittian Aragoi Iruñara lotuta geratuko da. Bestalde, erregiñak, kalifarekin hartuemonak sendotzia lortzen dau, Abderraman III.aren senide dala aprobetxauta. Halanda be, Todak Abderraman bere gustora erabilliko dau bere bidai famatuetan: batzuetan alde, bestietan kontra. Adibidez, 939. urtian, Simancaseko burruka mitikuan, Gaztela, Leoi eta Aragoiko ainttalliak albuán izan zittuan. Simancaseko burrukiaren esakerak Bavariako Saint Gall monasterioraiño heldu ziran 959. urtian; halaxe diño behintzat kastellanora itzulitako idatzi batek: "...un ejército innumerable de sarracenos fue casi aniquilado, menos su rey y 49 guerreros suyos, por cierta reina llamada **Toda**".

...eta kitto! 13/II/15 • 836 zkia.

Apalategiko kurba arriskutsua

Aste honetan, egin daben eurixak eraginda-edo, hiru istripu gertatu dira Eibarren, N-634 errepidian, ixa toki berian: Maltzaga-Azittain inguruan dagan Apalategiko bihurtunian. Astelehenian gidarixak automobilaren kontrola galdu eta istripu bi gertatu ziran, bat goizian eta bestia arratsaldian eta eguazten arratsaldian atzera be antzerako istripua gertatu zan ixa puntu berian. Gauzak holan, gidarixak errepidiaren mantentziaz arduratzen dan erakundiarri holakuak ez pasatzeko neurrixak hartzia eskatzen detse, "han inguruan sarrittan holako istripuak gertatzen dira-



Astelehen arratsaldeko istripuaren ondorengoko irudixa.



645 kilo janari Abontzatomaseri esker

Abontzako jai batzordeko kidiak Abontzatomasetan egindako jaira gerturatu ziraneri eskerrak emon nahi detsez, "etorritakueri esker antolatutako guztiak izugarrizko arrakastia euki ebalako. Jende asko etorri zan eta horrek aurrera egitteko indarra emoten desku". Haurrendako jokuak antolatuz gairi, urteroko moduan txistorra saltzen be ibilli ziran eta, egunotan famelixa asko laguntasun premiñan daguazela ikusitta, pintxuen salmentan batutako dirua hórri laguntzeko erabiltzia erabagi eben: "Dirua Gipuzkoako Elkaigaien Bankuari emotia pentsau genduan eta, Eroski tartian dala, guk emondakua Gipuzkoako famelixen artian banatzeko 645 kilo janari billakatu da".

Bildukuen zuzenketak aurrekontuari

EH Bilduko udal taldiak osoko zuzenketia eta 11 emendakin partzial aurkeztu detsaz 2013ko aurrekontuari: "Bizitzen dihardugun egoera sozioekonomikua (2.200 biztanletik gora langabettu dagoz) eta PSE-EEren proiektuen gainbeheria ikusitta, ezin dittugu aurrekontu kontinuista batzuk onartu. Udal gobernuak argi ikusi biharako leuke herrixak norabide aldatetia bihar dabela eta horri ekiteko dei egitten detsagu, gure zuzenketak onartuta". Proposatzen dittuen artian aittagarrixenak, arlo sozioekonomikuari begira, hónetxek dira: Eibarrera enpresak erakartzeko kanpaiña (32.400 euro); barrikuntza bulegua (57.500 euro), enpresen bittartekuetan oiñarrituta produktu barrixak sortzeko laguntasuna emoteko; ingurumena eta gizarte arluarekin lotutako enpresak sortzeko laguntasunak (125.000 euro); eta gizarte-laguntzak (40.000 euro). Bizi-kalidadia hobetzeko Urkizun estalitako parkia egittia proposatzen dabe (200.000 euro),



herri barruan baratzak (110.000 euro), ume txixendako lokala (100.000 euro), Ardantza-Errebal bittartian bidegorrixa (350.000 euro) eta Matsarixako autobus geltokixa (100.000 euro) egittiarekin batera. Proposatzen dittuenak egitteko dirua eskillara mekanikuen mantentze-biharretan aurreztuta, Foru Aldundiak mugikortasuna hobetzeko emondako 700.000 euruen parte bat erabillitza eta Karmen kalia egin nahi dittuen obrak saihestuta lortu leikiala pentsatzen dabe.

Neguko beherapenen azokia

Datorren asteeko eguaztenian zabalduko dabe Eibar Factoring, neguko beherapenen

azokia Toribio Etxebarria kalia ipiñiko dituen karpetan. Hillaren 22ra arte egongo da



martxan, egunero goizeko 10.00etan hasi eta illuntzeko 20.00ak arte, etenaldi barik. Danera herriko 23 dendak hartuko dabe parte, merke-merke ipiñiko dittuen orotariko produktuak saltzen.

Aurten neguko beherapenen azokia T. Etxebarria kalia egongo da. LEIRE ITURBE

Metalekuen mobilizaziñuak

Herrialde maillako hitzarmenaren aldeko mobilizaziñuekin aurrera segitzen dabe Debabarreneko metaleko LAB-eko ordezkariak. Aurreko astian, hillaren 7xan kotxe-karabanan zihar-katu eben eskualdia eta aste honetan be "metaleko hitzarmena galtzeko daguan arriskuaz ohartarazteko pankartak eta kartelak" jartzen ibilli dira. Egoeria kanbixatzen ez dan bittartian mobilizaziñuekin jarraituko dabela aurreratu dabe, "bakarrik holan bermatuko dalako ixa 50.000 bihargin baiño gehixagori aterpia emoten detsan hitzarmena ez galtzia". Datorren astelehenian, hillaren 18xan, 12.00xetan Industrias Mail enpresaren aurrian alkarretaratzia egingo dabe, "Adegi-ko ejekutibako partaidien jarrera itxixa salatzeke".



autuan



MODELO BILLA

Valenciaga arropa dendak desfilia egingo dau martxuaren 22xan eta modelo moduan desfilatzeko neskek eta mutilak bihar dittu. Interesa dakenak hillaren amaiera arte dendatik pasau leikie (Zuloagarren kalia).

EIBARTARRARI EPAIKETIA

2007xan Jarrai-Haika-Segi auzia salatzeke A-8 autobidia moztu eben 5 gazte, tartian Naroa Ariznabarreta eibartarra datorren astian, hillaren 21ian Donostian epaituko dittue. 12 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri nahi detse, bakotxarendako 30 hillebeteko kartzela zigorra eskatuta. Gaur 19.30xetan T. Etxebarrian informaziñua emoteko batuko dira eta epaiketa egunian Donostiara juateko autobusak antolatatu dittue (urteeria Ego Gaiñetik 09.30xetan).

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73



Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar:

Otaola, 27

Bulegoa:

Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi

El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·



asteko
3.042
datua

3.042 maillegu egin zittuen 2012xan liburutegixan atzeriko hizkuntzetan, gehixenak (2.613) ingelesez; frantsesez 130, alemanieraz 34, arabieraz 32 eta italieraz 24 egin ziran.



Lagun Taldekuen zozketia

Urtarrillaren 19 eta 26xan Lagun Taldekuak Unibersidade Laboralian eskindu zittuen ikuskizunetara juandakuen artian zozketia egin dabe eta hónetxek dira sarixa jasoko dabenak: urtarrillaren 19kua 2.170 zenbakixa dakanak eruango dau eta 26kua 5.523 zenbakixa dakanak.



Amañako garajietan ura sartzen da

Martitzen goizian Bilduko ordezkari-ekin batera Amañan egon giñan kazetari-xak, oin dala gitxi inauguratu eben frontoiaren azpiko garajietan urarekin dituen arazuak ikusten. Garajietako jabiak arazuaren gaiñian ohartarazita gai-xari heldu detse Bildukuak eta, batutako informaziñuaren arabera, "konpondu bariko obrako akatsak dirala-eta, 2012. urte osuan rifi-rafea euki dabe Amena-bar eraikuntza-enpresia eta Udaleko kanpoko zuzendaritza teknikuak; azken honek, proiektua egittiaz gain, biharrak be zuzendu zittuan".



Jabiak behin baiño gehixagotan jo dabe Udalera konponbide billa, "bainā oiñ arte ez dabe ezer konpondu". Bixen bittartian, garajietara ura etenbarik sartzen dihardu eta honezkero sabai zati batzuk jausten hasi dira. Auzokidiak diñenez, "goiko terrazan biharran jardun ebenian ura ez sartze-ko erabilitako materixala daguan onena ei da, bainā ez bada ondo ipintzen alperrik dabilta". Bilduren eritziz, "obra publikuetan zuzendari-



Konpondu bariko obrako akatsak begibistakuak dira. SILBIA H.

tza teknikorako kanpoko profesionalak kontratziak ez dau bermatzen obretako kontrol ego-kixa egingo danik" eta Amañan gertatutakua horren adibidia litzake. Terrazako biharrak 871.293 euroko aurrekontua euki eben (erdixa-edo Eusko Jaurlaritzak pagau eban).

Salaketa publikuaren barri euki eta egunian bertan alkatetzak erantzuna emon eban: "Urtarrillian ekin jakon espedientiari, enpresia egin-dako biharrak ez dabelako lortu hezetasun arazuak konpontzia". Horrekin batera, Bilduk esandakuari zuzenian erantzuten zera diñue: "Udal teknika-ri obriari jarraipen zuzena egin detsa eta horri esker lehelengo filtraziñuak antzeman ziranetik biharren arduria euki daben enpresia-ri hórren gaiñeko salaketa egittia posible izan da". Kontratistari ahoz zeñ idatziz behiñ baiño gehixagotan arazua konpontzeko eskatu detse-la gaiñeratuta, datozen astietan hezetasunarekin amaitzeko biharrak beste enpresa bateri aginduko detsazela aurreratu dabe.

Trafiko aldaketak bardin

Amaña-Ardantza tartian trenbidia estaltzeko biharrak trafiko aldaketa garrantzitsuak eragin dittue. Hainbatek Barrenenguatik gora doiazan automobillak Isasira biratzeko aukeria emoteko eskatu detse Udalarari, baiña trafikua-aren oingo ibilbidia eta proposatzen dabena aztertzen jardun eta gero, gauzak daguazan moduan lagatzia erabagi dabe, "trafikua arintziarren". Izan be, eskaeria-ri kasu egiñ ezker, trafikuan arazuak agertzeko aukera asko ei dago, bestiak beste bueltia emoteko toki gitxi dagualako.

Gauza bera gertatzen da Otaola Hiribidetik Bizkairako norantzan doiazanekin.

Martxuan hasiko dira J. A. Mogel barrizatzen

Udalak, Debegesak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, auzua goittik behera barrizatze-ko proiektuak aurrera egingo dau eta, dana aurreikusitta daguan moduan jua ezker, martxuan biharrerri ekitia espero dabe. Auzuan 21 pegora dagoz eta bakotxian 10 etxebizitza, eta hainbat billeraren ostian gehixenak, 15 pegorak hain zuzen be, barrizatze-proiektuari baietza emotia lortu dabe azkenian. Diruz-lagundutako proiektuari esker, pegora bakotxian igogaillua ipiñiko dabe, faxadia eta teillatua konponduko dittue eta eguzki-energia aprobetxatzeko plakak ipiñiko dittue.

Koko-jantzixen sasoiak ez daka akaberarik momentuz. Holan, urterokuari jarraituz, gaur Giza Irudixen erakustaldixa izango da Untzagan eta Toribio Etxebarria kalia. 11 urte betetzen dira aurten Bartelonako antzezliak gurera etortzen hasi ziralako. Txapligu moduko horren atzetik, hitzaldi-tertulixarekin (ohikua hori be) hasiko dira Antzerki Jardunaldixetako motorrak berotzen. Datorren eguaztengan, hillaren 20xan, Juan Diego Bottok eskinduko daben hitzaldixa aprobetxatuz, eta Narruzko Zezen sari-emonaldixa tartian dala, oiñ hillabete batzuk laga gintuan Txema Cornago omenduko dabe. Berak ordezkatzan zeban Jardunaldixetako espiritu horri jarraitu nahi izan detse antolaketaren pisua hartu dabenak, Juan Ortega buru dakela. Eta Udalaren parte-hartzia handiagotu egin da, Cornagok lagatako hutsunia ahal dan neurrixan betetzeko ahalegiñian.



Miguel de los Toyos eta Juan Ortega izan ziran eguaztengan egindako aurkezpenian. SILBIA HERNANDEZ

36. Antzerki Jardunaldixak: 23 saio bost astetan

Harañegun aurkeztu zittuen, udaletxeko pleno aretuan, 36. Antzerki Jardunaldixak. Aurkezpen ekitaldixan, Miguel de los Toyos alkatiak eta Juan Ortegak hasieratik izan zeben goguan iaz hil zan Txema Cornago eta, jardunaldixak amaitsu bittar-

tian be, hala izango dabela azpimarratu eben. Aurtengo egitaraua gaurko kale-antzerkixarekin hasiko da: 17.00etatik aurrera XI. Giza Irudixen erakustaldixa egingo da Untzagan eta Toribio Etxebarrian. Antzerki Jardunaldixak Cornagori omenaldixa egitteko ekitaldixak, bestalde, irekiera ofizialarekin egingo dau bat, datorren aste-ko eguenian, 19.00etan, Coliseoan: Juan Diego Botto aktoriak *El Teatro y la memoria* izenburuko solasaldixa emongo dau, Juan Velázquez *Diario Vasco*-ko Aula de Cultura-ko zuzendarixak aurkeztuta.

Narruzko Zezen sarixak

Ekitaldixan bertan banatuko dittue Narruzko Zezen antzez artikulu eta gidioentzako lehiaketako 28. ediziñoko sarixak. Aurtengo irabazliak, antzez artikuluetan 13 urtera artekuen maillan, Itzio BHI-ko Malen Illarramendi Beitia (*"Se abre el telón y comienza la función"*) eta Safia Samadi (*"Amanda, la nueva chica de mi clase"*) izan dira; 14-16 urtekuen maillan, Itzioko Jon Portu Gamazo

(*"Monólogo"*) eta Ibone Sainz Baratta (*"El dentista"*); antzegidoietan sari bakarra emon dabe, 16 urtera artekuen maillan, eta irabazlia Yeray Alonso Iglesias izan da *"Madrid-Arena"* lanarekin.

Aurtengo barrittasuna Udalak jardunaldixen antolaketia bere gaiñ hartzian dago. Halanda be, eskintzari dagokixonez, azken urtiotako maillari eustia lortu dabela azaldu dabe aurkezpenian eta, 140.000 euroko aurrekontua erabillitta (Udalak 60.000 euro ipiñiko dittu) holako egitaraua osatzia *"miraritzat"* jo dau Ortegak. Sarrerren prezixuan ez da aldaketarik izan (11-15 euro bitarttitan egongo dira gehixenak) eta aurrezalmentia bixar hasiko da Coliseoan, 10.00etatik 16.00-etara; etzi eta astelehenian, barriz, 10.00etatik 14.00xetara egongo dira. Horrez gain, funtzio baktxaren aurretik, 19.00etatik 20.00etara, be aurrezalmentia martxan izango da eta emanaldi baktxa hasi baiño ordu erdi lehenago sarrerak leihatillan salgai egongo dira, ohiko salmentiarri jarraituta.



Giza Irudixen erakusketan bost antzele izango dira. LEIRE ITURBE

Cornagoren osteko lehelengua

Txema Cornagoren espiritua hartuko dau jardunaldixetako 36. ediziñua eta, bera barik be, bera presente izatia nahi izan dabe antolatzailliak. Hori ondo ikusiko da datorren eguaztenerako prestatu detsen omenaldixan, Juan Diego Bottok Coliseoan emongo daben hitzaldisolaldixa aprobetxatuz. Bittartian, haren hutsunia modu onenian kubritzen dihardute Juan Ortega, Juan Aldai eta inguruak, Udala be tartian.

Antzerkixa eta memoriaren artekoa jorratuko dau datorren asteko hitzaldixan Juan Diego Bottok, aurtengo Jardunaldixak "Un trozo invisible de este mundo" lanarekin itxiko dittuen berak. Azken lan hau Cristina Rotaren Teatro Español lek eskinduko dau (martxuaren 20xan eta 21ian, Coliseoan, Bottok eta Astrid Jonesek antzetuko dabena) eta, Madrilgo Trianak "La lengua



Txema Cornagok lagatako arrastuari jarraitzia erabagi dabe Jardunaldixetako antolatzailliak.

madre"rekin batera (martxuaren 4an eta 5ian, Hezkuntza esparruan, Juan Diego antzezliaren monologuarekin), bakarrak izango dira bixak bi egunetan jarraixan eskinduko diranak.

Aurretik, baiña, gaur arratsaldekoa dogu Untzagan eta Tori-

bio Etxebarria kalia, ixa konturatu barik Giza Estatu XI. ediziñora aillegatu garan honetan: Erdi Aroko bidaiarixa, Ametsetak maitagarrixa, Indartsua, Transformers eta Krionek osatuko dabe Bartzelonatik datorren aurtengo bostekua.



Juan Diego Botta.

ESTHER KAREAGA (KULTURA-EUSKERA ZIÑEGOTZIXA):

"Jardunaldixak antzerkixa ikusteko atxakixa dira askorendako"

- Aurtengo jardunaldixak antolatzeko orduan Udalak errelebu hartu detsa Uni Kultur Alkartari. Aldaketarik etorriko da alde horretatik?

Udalak bere gaiñ hartu dabena batez be kudeaketari eragiten detsa, hau da, aurrekontu baten barruan jardun bihar dogu eta, alde horretatik, diru kopuru zihetz bateri moldatu bihar dogu.

- Zelako zailtasunak dagoz holako programa ziñua osatzeko orduan?

Egixa esateko, gure eginbiharra zuzenian diruaren kudeaketiari lotuta dago, aurrekontura egokitzeko premiñatik sor leikiazen zailtasunak topau geinkez, beraz. Bestela, urte osuan antezlanak ikusi eta aukeratzan jarduteko arduria oindiok be Uniko lantaldiak dauka.

- Eta zelako garrantzia daka Eibarrerako hola Antzerki Jardunaldixak antolatziak?

Gure inguruan eta hamendik kanpora be oso ezagunak dira Eibarko Antzerki Jardunaldixak eta nahitta nahi ez, bestela antzerkixa ikustera animatzen ez diran askorendako lanen bat ikustera juateko atxakixa badira, urtero noiz ai-



llegauko zaiñ egoten dira. Izan be, Coliseo antzokixan hillero antezlan pare bat taularatu arren, askotan jendiak ez dau ondo erantzuten, kalidadezko lanak izanda be. Bestalde, urtian zihar dagan antzerki eskintzan topauko ez dittugun lanak ikusteko aukeria emoten deskue jardunaldixak.

Coliseo eta Hezkuntza Esparruko antzertokixak

Azken urtiotan ohikua bihurtu danez, lanak bi eszenarixotan banatuko dira, lan bakoixaren ezaugarriaren arabera. Coliseok 13 saio hartuko dittu eta Hezkuntza Esparruak 9, azken hoietako hiru zine emonaldixak izango badira be. Antzerkixa eta zinia lotzen dittuen azken honek egunetan eskinduko dira (otsaillaren 21ian eta 28xan eta martxuaren 7xan), arratsaldeko 17.30xetan eta gabeko 21.00etan. Antzerki saio guztiak, bestalde, 20.30xetan hasiko dira; kenduta umiendako izango diran bixak, horrek 17.00etan izango baitira. Bi lan dagoz azken esparru horretan: otsaillaren 23an Gorakadak eskinduko daben "Munduari itzulia" (euskaraz-

kua) eta martxuaren 7xan Ara Malikianek erakutsiko deskun "Mis primeras Cuatro Estaciones", lan bixak be zapatuan eskinduko diranak.

Euskerazko lan bi

Tantaka taldiak, Iker Galartza eta Itziar Atienza antzezliekin, otsaillaren 27xan eskinduko daben "Gauerdian" lana izango da, martxoaren 10ian Tartean. Ez dok Hiru Biko-k ekarriko deskun "Lingua Nabajorum"-ekin aurtengo Jardunaldixetako euskarazko lan bakarrak (lehen aittatutako umiendako "Munduari itzulia"rekin batera). Mikel Martinez eta Patxo Telleria bikotiak antzetzuko daben "Lingua Nabajorum" AEK-rekin batera programatu da, Korrikaren 18. ediziñuaren barruko funtziño moduan.

Teatro A Cuestas-ek martxuaren 9xan aurkeztuko daben "Locas" lana, bestalde, Eibarko Emakumiaren Mahaixa eta Bardintasun Arluaren launtzarekin programatu da, Emakumiaren Naziñoarteko Eguna ospatzeko antolatatu dan egitarauaren barruan. Ana Casas eta Maribel Jara dira bertako antzezliak.

Lau estreñaldi

Estreñaldixeri begira, La Chana Teatroaren "¡Gaudeamus!" (otsaillaren 22xan), Teatro Corsarioren "El médico de su honra" (otsaillaren 26xan), Uruguayko Godoyren "Verás

36. ANTZERKI JARDUNALDIXETAKO EGITARUA

OTSAILLA

15, barixakua	17.00
20, eguaztena	19.00
21, eguena	17.30 & 21.00
22, barixakua	20.30
23, zapatua	17.00
26, martizena	20.30
27, eguaztena	20.30
28, eguena	17.30 & 21.00

MARTXOA

1, barixakua	20.30
4, astelehena	20.30
5, martizena	20.30
6, eguaztena	20.30
7, eguena	17.30 & 21.00
9, zapatua	17.00
9, zapatua	20.30
10, domeka	20.30
12, martizena	20.30
13, eguaztena	20.30
15, barixakua	20.30
16, zapatua	20.30
18, astelehena	20.30
20, eguaztena	20.30
21, eguena	20.30

Giza Estatuaren Erakusketa

Omenaldixa eta Hitzaldixa (J.D. Botto)
ZINEA - **Asier Errasti Jaialdiko Laburrak**
Gaudeamus (La Chana)
Munduari itzulia (Gorakada)
El médico de su honra (Corsario)
Gauerdian (Tanttaka)
ZINEA - **César debe morir**

UNTZAGA & T. ETXEBARRIA
COLISEOA
HEZKUNTZA ESPARRUA
HEZKUNTZA ESPARRUA
COLISEO
COLISEO
COLISEO
HEZKUNTZA ESPARRUA

Verás que todo es mentira

(Godoy)
La lengua madre (Triana)
La lengua madre (Triana)
Antígona Oriental (Goethe Institut)
ZINEA - **The deep blue sea**
Mis primeras Cuatro Estaciones (Ara Malikian)
Locas (Teatro A Cuestas)
Lingua Nabajorum (Tartean. Ez dok Hiru Biko)
Calla y come (La Cocina)
Para qué recordar (Txaika. Anima Eskola)
¡Muuu! 2 (Yllana)
El chico de la última fila (Teatro estudio)
Siglo de Oro, Siglo de Ahora (Ron Lalá)
Un trozo invisible de este mundo (Teatro Español)
Un trozo invisible de este mundo (Teatro Español)

COLISEO
HEZKUNTZA ESPARRUA
HEZKUNTZA ESPARRUA
COLISEO
HEZKUNTZA ESPARRUA
COLISEO
HEZKUNTZA ESPARRUA
COLISEO
COLISEO
HEZKUNTZA ESPARRUA
COLISEO
COLISEO
COLISEO
COLISEO



que todo es mentira" (martxuaren 1ian) eta Ron Lalá konpainiaren "Siglo de Oro. Siglo de Ahora" (martxuaren 18xan) lehelengo bidar estreñiatuko dira Euskal Herrixan gure Jardunaldixetan.



Yllanak "¡Muuu!" lana eskinduko dau martxuaren 15ian.

Ziniarekin lotutako pelikuleri dagokixenez, Asier Errasti Jaialdiko azken ediziñoko laburmetraiekin batera, Italiako Taviani anaixen "César debe morir" eta Terence Daviesen "The deeo blue sea" pelikulak ekarri dittue antolatzailliak aurtengo programaziñorako.

Informaziño gehixago 943-254465 telefono zenbakixan

Jardunaldixak iragartzen urtero kaleratzen daben liburuxkak dakarren informaziñuan

badira bi gauza zuzentzekuak: martxuaren 12xan eskinduko dan "Calla y Come" lana Hezkuntza Esparruan izango dala (ez Coliseoan, folletuan agertzen dan moduan) eta martxuaren 15eko "¡Muuu!" alde-rantziz, Hezkuntza Esparrutik Coliseora pasatuko dala. Horrez gain, informaziñua jasotzeko bertan agertzen dan telefonua be ez dago zuzen: edozein gauzarako interesatuak 943-254465 zenbakira deittu bihar dabe.



"Lingua Nabajorum" eta "Gauerdian" euskeraz eskinduko dira.

Automobilak garbitzeko sistema ekologikoa darabilen enpresa da Garbibox. Urtzi Antxustegi eta Gorka Artetxe ondarrutarrek sortu dute eta El Corte Inglés-eko parkingean, 1. solairuan dago. Hilabete baino gutxiago daramate eta, honezkerok, 60 automobil baino gehiago garbitu dituzte inguruan parekorik ez duen sistemari jarraituta.

- Nola da posible automobilak ur barik garbitzea?

Uraren ordez likido bereziak erabiltzen ditugu automobilak kanpotik zein barrutik garbitzeko. Produktuak Europan dauden onenak dira eta, %100 ekologiko eta biodegradagarriak izatean, natura eta ingurumena zaintzen dute, oso ondo garbitzeaz gain. Horiek eta mikrofibrazko trapuak erabiltzea, eskuz garbitzen ditugu automobilak eta, alde horretatik, makinek ez bezala, guk ez diogu txapari urratu eta horrelakorik egiten. Sistema honek beste abantaila batzuk ere badauzka: garbitu ostean automobilari argizaria ematen diogu eta horrek hautsa hartzea eragozten du. Beraz, horri esker automobilak luzaroan garbi egoten jarraitzen du. Eta alde ekologikora bueltatuta, beste sistemekin automobil bakoitzeko 120 bat litro ur gasatzen direla kontuan hartzen badugu, guk garbitzen dugun automobil bakoitzeko kopuru hori aurrezten dugu. Beharrez eman ditugun 3 aste hauetan 59 ibilgailu garbitu ditugu eta, beraz, 7.080 litro ur aurreztu ditugu orain arte.

- Asko kostatzen da automobilak eskuz, zuek egiten duzuen moduan garbitzea?

Bai, beharra ematen digu, baina emaitza oso ona da eta merezi du. Automobil bakoitzeko batzuk beste ordubete eta ordu eta erdi bitartean behar izaten dugu, kotxea goitik behera erreparatzen dugu-eta.

- Eta garestia da?

Eskatzen denaren arabera prezioa aldatzen doa, baina ibilgailu estandarra osorik (barrutik eta kanpotik) garbitzeagatik 29 euro kobratzen ditugu eta monobolumenak garbitzeagatik 46 euro. Larruarendako tratamenduak eta tapizeriaren garbiketarak ere egiten ditugu eta laster argien leunketarekin hasiko gara. Izan ere, askori horregatik botatzen diete atzera IAT (Ibilgailuen Azterketa Teknikoa).

- Zergatik animatu zarete horrelako enpresa sortzera?

Bestela ere automobileen lotutako beste kontu batzuetan jardundakoak gara eta ur bariko garbiketara sistema honen berri izan genuenean probatzera animatu ginen. Ate joko hasi eta El Corte Inglés-eko segidan azaldu ziren laguntzeko prest, zerbitzuarekiko interesa zutela esan eta euren aparkalekuan guretzat tokia egin zuten, guk beharrez jardun ahal izateko eta alde bietatik oso pozik gaude.



Urtzi Antxustegi eta Gorka Artetxe (GARBIBOX)

"7.000 litro ur aurreztu dugu hiru astetan"



JUAN OSÉS BIENZOBAS

II. urteurrena (2011-II-17)

"Gure bihotzetan jarraitzen duzu betirako"

Zure familia


BERE ALDEKO MEZA otsailaren 17an (domekan) egingo da, eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokan.



Dani Gascón diskoa zuzenean aurkezten

Bigarren diskoa, "Todo va cambiando" izenburukoa argitara eman berri du Dani Gascón eibartarrak eta gaur Eibarren, El Corte Inglés merkataritza zentruan ezagutzera emango du, zuzeneko emanaldian: 19.00etan nahi duenari diskoa sinatuko dio Gascón-ek eta ordubete geroago, 20.00etan, kontzertu akustikoan zuzenean eskainiko ditu lan berriko abestiak. Aurreko diskoarekin alderatuz gero, honetan rock estilora gehiago gerturatu da. Diskoa otsailaren hasieraz geroztik erosteko moduan dago hainbat dendatan eta, horrez gain, iTunes eta Spotify-n ere aurkitu dezake nahi duenak.

Iazko martxoa eta azaroa bitartean Bartzelonako H Studios-en grabatutako diskoan hainbat musikari ezagunen laguntza jaso du eibartarrak. Has-teko, laneko lehenengo singleari Aurora Beltrán Tahúres Zurdos taldeko abeslaria zenak ipini dio ahotsa. Horrekin batera, "Cuando más me pides" baladan Danirekin batera Pedro J. Hermosillak abesten du. Azken honetarako, gainera, lanaren ekoizpenean parte hartu du, Marcel Botellarekin batera. Grabazioan Gascón-ek Jordi Armengol, Jordi Franco, Pere Moved eta Marc Sort musikariak izan ditu laguntza.



Teknologia berrietan murgiltzeko tailerrak

Udalak gazteak teknologia berrietan murgiltzeko tailerren 2. edizioa abiarazi du: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat prestatutakoetan "Tux painting" (dibujoko programa), "Tux typing" (mekanografia ikasteko programa) eta "Pixton for fun" (komikiak eratzeko programa) programetan trebatzeko aukera eskainiko dute eta 5. eta 6. mailako ikasleek, berriz, "Scratch" delakoarekin programazioaren aurreneko pausuk emango dituzte.

"Tux painting", "Tux typing" eta "Pixton for fun" tailerrak barixaku arratsaldetan emango dituzte, martxoaren 1ean, 8an eta 15ean (ordutegi bi aukeran, 17.00etatik 18.00eta-



ra eta 18.00etatik 19.00etara). Prezioa 7 eurokoa izango da Eibarren errolatutakoentzat eta 14 eurokoa besteentzat. "Scratch" ikastaroa, berriz, zapatuetan emango dute martxoaren 2an, 9an eta 16an (ordutegi bi aukeran, 16.00etatik 17.30etara eta 17.30etatik 19.00etara). Eibarren errolatutakoek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta besteek 20 euro.

Klase guztiak Eibarko UEUko irakasleek emango dituzte, umeen Juan San Martin liburutegian. Eskaerak egiteko epea astelehenean, otsailaren 18an zabalduko da eta interesa dutenek 26ra arte izango dute izen-emateko aukera, Pegoran eskaerak aurkeztuta.

pr publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951


Asteburu osoan euria ia geratu barik bota du eta, horri egin duen hotza gehitzen badiogu, aurten aurreko urteetan baino jende gutxiago animatu da koko-janzen. Hala ere, Untzagako karparen babespean aurreikusitako ekitaldi guztiak egin dira. Bari-

xakuan, Kaldereroen kalejira amaitzean Ander Romaratek irakurritako pregoiak ekin zion jaiari modu ofizialean. Aratoste Zapatuan egunez behintzat giro polita ikusi zen kalean eta Aratoste Domekan jendetza batu zen karpa barruan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako play-back lehiaketan: 11 taldek jardun zuten taula gainean eta Uni Kultur Elkarteak aukeratu zituzten irabazleak: La Salleko Zurizaileak (Interpretazio onenari saria), eskola bereko Euskadiak Suhiltzaileak (Mozorro onenari saria) eta San Andreseko The Crazy's (Koreografia onenari saria). Bestalde, Udalak antolatutako taberna lehiaketan, Aratosteetan dotoreen jarritako taberna XOK zela erabaki zuten. Eta martitzenean, euripean, sardinaren entierro txikiak agurtuko zituen 2013ko Aratosteak.



EURITOSTIERI AGUR







CONCHI ELORZA (jostuna)

"Gazteek oso azkar ikasi dute josten"

Urte hasieran jostintza tailerra ipini zuten martxan Ikasten Debabarrenako Esperientzia Eskolako ikasle ohien elkartekoek. Klaseak asteen behin, eguen arratsaldetan 18.00etatik 20.00etara ematen dituzte Portalean Conchi Elorzak eta Conchi Valenciak eta musutruk eta izena eman barik hartu daiteke parte bertan. Nahikoa da josteko gogoia izan eta aipatutako egun eta tokian agertzea.

- Hilabetetik gora daramazue jostintza tailerrarekin. Zer moduz?

Pozik gaude, jendeak ondo erantzun du eta aurreko asteen, adibidez, 25 bat lagun elkartu ginen klasean. Gehienak andrazkoak gara, baina pare bat gizon ere badaude. Adinari begira, nagusiak gazteak baino gehiago izango gara, baina alde gutxi-rengatik, gazte dezentetortzen da, horietako asko etorkinak.

- Eta zer ikasten duzue?

Maila ezberdina dute ikasleek. Gazteak, adibidez, hutsetik hasi dira: zelako puntadak eman behar diren, albainua, atzerapuntada... dena hutsetik ikasten hasi dira. Beste batzuk honzekero josteko makinarekin hasita daude. Bakoitzak dakienaren araberrako erritmoari jarraitzen dio.

- Zelakoak josten dituzue?

Ba adinaren arabera aldea dago: edadeko jendeak batez ere arropak konpontzen ditu, lehenagotik zituen jantziak estutu eta bestelako moldaketak egiten ditu batez ere. Baina gazteek, nahiz eta aurretik ezer ez jakin, oso azkar ikasten dihardute eta gauza berriak sortzeko ideia asko dituztela argi ikusten da. Asko unibertsitateko ikasleak dira eta klaseak amaitu eta gero etortzen dira tailerrera, ikasteko interes handia dute.

- Proba modura hasi zineten tailerrarekin, baina noiz arte jarraitzeko asmoa daukazue?

Berez martxoaren 14an amaitzekoak ginen, baina jendea pozik dabil eta beharbada, aukera izanez gero behintzat, tailerrarekin jarraituko dugu amaitzeko data horren ondoren ere.



Musikak izan zuen bere tarte ospakizunean.

Aratosteak Goi Argin

Urteroko moduan, aurten ere Aratosten inguruko ospakizun berezia izan zuten martitzenean Goi Argi andrazkoen elkartean. Jaian parte hartu zutenek esandakoaren arabera, "giroa ezin hobe izan zen eta merienda jan eta gero, txistek kontatu eta kantuan jarduteko tarte izan zen".



Gazta mordo dastatzeko aukera izan zuten. SILBIA HERNANDEZ

Gazta dastaketa arrakastatsua

Ramon Lizeaga gaztagilearen eskutik gazta-dastaketa saio interresgarria hartu zuen martitzenean... eta kitto! Euskara Elkarteak, Illunabarrian programaren barruan antolatutako ekitaldian. Bertan parte hartzen izan ziren hamabost lagunek aintzinako errezetei jarraituta artisau eran egindako 17 gazta mota ezberdin jateko aukera izan zuten, bakoitzaren ezaugarrien inguruko azalpenak jasotzen zituzten bitartean.

Berba zatarrena, domekara arte

Udal Euskaltegiak eta AEK-k euskerazko berbarik zatarrena aukeratzeko lehiaketa antolatu dute udalarekin elkarlanean. Bakoitzak berari itsusiena iruditzen zaion berba aurkeztu beharko du eta jendearen botoen bitartez jende gehienaren ustez berbarik zatarrena zein den ikusiko dute antolatzaileek. Lehiaketara berbak aurkezteko epea domekan amaituko da. Parte hartu nahi duenak berak proposatutako berba euskaltegiara zuzenean eraman edo e-mailez (euskaltegiaeibar@telefonica.net / eibar@ae.org) bidaltzeko aukera izango du. Berbarik itsusiena aukeratzeko botoak, berriz, www.eibarko-euskara.com webgunean jasoko dituzte, otsailaren 22tik martxoaren 3ra bitartean.

Pianojole gazteak Coliseoan

Domekan 12.30etan hasiko da Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak antolatutako IV. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia Coliseo antzokian. Jaialdian Eibarko 55 piano ikaslek hartuko dute parte, kategoria bitan: bakarleri gisara (11 urtera arte, 14 urtera arte eta 18 urtera arte) eta lau eskutara (11 urtera arte, 14 urtera arte eta 18 urtera arte). Pianojole gazteak Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoak eta Isabel Laspiur irakaslearen zein beste akademia batzuetan ikasten dihardu-



ten ikasleak dira. Sarrerak euro bi balio du eta emanaldiaren aurretik Coliseoan bertan erosteko aukera izango da.

Aratosteetako argazki lehiaketa martxan

Arrate Kultur Elkartek XVI. Eguen Zuri argazki lehiaketa antolatu du: argazkietarako gaia Aratosteak (Eibarkoak zein kanpokoak) dira eta lehiaketa irekia eta libre da parte hartu nahi duten zaletu guztientzat. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez lau argazki aurkez ditzake. Neurria eta kolorea zein zurbeltza erabiltzea egileak berak au-

keratuko du, baina lanak aurkezteko orduan antolatzaileek euskarri edo passpartout-a izatea eskatzen dute (gutxienez 20 x 30 zentimetrokoa).

Argazkiak Arrate Kultur Elkartearen (Zuloagatarren 3, Eibar) entregatu beharko dira, lehen solairuko bulegoetan edo tabernan. Horretarako azken eguna martxoaren 12a izango da (21.00ak arte). Argazki onenaren egileak 160 euro jasoko ditu, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 60 euro. Aukeratu-tako argazkiak Arrate Kultur Elkartearen lokaletan ikusgai ipiniko dituzte martxoaren 22tik 31ra. Informazio gehiagorako 943202299 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



Transmisioari buruzko mintegia maiatzean

Portalea kultur etxeak Euskararen transmisioari buruzko III. Mintegia hartuko du maiatzaren 7an. Aurreko edizio bietan egindakoaren bidetik, ekitaldia ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuko du eta honezkero mintegian parte hartzen izango diren hainbat lagun eta elkarteren izenak aurreratzeko moduan gaude: Soziolinguistika Klusterra, Jean Baptiste Coyos, Urtxintxa Eskola, Iñaki Pikabea, Paula Kasares, Ahotsak.com eta Kike Amunarriz. Informazio gehiagorako 943200918 telefono zenbakira deitu daiteke (Ainara) edo, bestela, normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzi.



Bide zabalak hilaren 24ra arte

Portaleko erakusketa aretoan egunotan ikusgai dagoen "Bide Zabalak" izenburuko erakusketa hilaren 24ra arte ikusgai izango da, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Erakusketan baliabide berrien erabilpenaren aniztasuna agerian laga nahi dute eta horretarako Silvia Abella, Patxi Araujo, Maialen Arozena, Xabier Barrios, Izaskun Etxebarria, Xabier Idoate, Mariana Martín, Silvia Ruiz, Jaber Villarreal eta Augusto Zubiaga EHUko Arte Ederren Fakultateko artisten lanak aukeratu dituzte.



laburrak

BIZIMINA-REN ZOZKETA

Bizimina plataformak asteburuan egindako zozketan 0124 zenbakia izan da saritua eta, beraz, horrentzat izango da saria: umeendako Orbea bizikleta. Irabazleak 634416042 zenbakira deituta jasoko du saria.

ARGAZKILARI IKASTAROA

Deporrek antolatutako argazkilaritza ikastaroan toki librerik ez da geratzen, antolatzaileek plaza guztiak bete direla aditzera eman dute-eta. Bestalde, martxoaren 2rako sormen-argazkilaritzaren inguruko tailerra antolatu dute. Irakaslea Luis Pontijas Conde izango da eta goizez eta arratsaldez emango ditu azalpenak, Portaleko areto nagusian (sarrera doan eta libre izango da).

SAN VALENTIN

Untzagako jubilatutako etxeak San Valentín ospatzeko txokolate-jana antolatu du gaur arratsalderako, 18.00etan hasita. Maiteminduta daudenentzat opariak banatu dituzte, baina horretarako bazkide txartela aurkeztu beharko da.



Alejandro Altuna

Ariketa fisikoa eta gaixotasun kronikoak

Ariketa fisikoa gaixotasun kronikoen (infartoak, diabetesa, arnas aparatukoak, Alzheimerra, fibromialgia) tratamenduan/prebentzioan oso gomendagarria da.

Zehazki, gaixotasun neurodegeneratiboetan neuronak estresetik eta sedentarismotik babesten ditu, esperientzia berriei egokitzeko ahalmena gehitu eta demenzia gutxiago izatea eraginez.

Asko ikertu da infartatueta eta diabetikoetan ariketa fisikoak duen eragina.

Diabetesa, obetsitatea, hiperkolesterolemia eta hipertentsioa dira ezagunenak gaixotasun metabolikoen artean: horietan ariketa fisikoa eta dieta batera joan behar dira. Ariketa fisiko gomendagarriena? Astean 5-7 bider, 40-60 minutuko saioak, beti aerobikoak; metabolismoa bizkortzeko, saio bakoitza bi zatitan egitea da aproposena.

Hobekuntzak 6 hilabetetan igartzen dira eta gaixoen motibazioa oso garrantzitsua da; hasieran oinez ibiltzea eta atsedena tartekatzea gomendatzen da.

Arnas aparatuko gaixotasun guztietan ariketa fisikoa egitea ezinbestekoa dugu: asma, bronkitisa... Ezer egiten ez badugu, disnea (arnasa hartzerakoan nekea) gero eta handiagoa izango dugu. Arnasa hartzeko gehien erabiltzen dugun giharra diafragma denez, ariketekin gogortzea komeni zaigu. Alzheimerren kasuan, %5ean bakarrik esan daiteke jatorri genetikoa duela; besteetan, faktore psikosozialak eta ariketa mental eta fisiko ezak eragin handiagoa dute. Ikerketa horiek ez dira bakarrik kirol medikuntza arlotik bultzatu: asko biologo eta internisten eremutik eginak izan dira.

Duatloi denboraldia asteburuan hasiko da

Euskadiko triatloi federazioak antolatutako egutegian, duatloiko 13 proba, triatloiko 17 eta akuatloiko eta duatloi krosetako bana jokatuko dira. Duatloikoak asteburu honetan abiatuko dira eta maiatzera arte iraungo: hamar Bizkaian egingo dira eta hiru Gipuzkoan (Eibarko Duatloia martxoaren 2an jokatuko da) distantzia sprint, motz eta luzeko probekin. Triatloi denboraldia maiatzaren 4an hasiko da eta irailan amaituko: hor zortzina proba egingo dituzte Gipuzkoan eta Bizkaian eta bakarria Araban, eta distantzia luzeak ere bere tarte izango du -Bizkaian Getxo, Bilbo eta Garaiko probekin, Gipuzkoan Zarautzekoarekin eta Ara-



Eibarko Duatloia martxoaren 2an jokatuko da. LEIRE ITURBE

ban Gasteizkoarekin. Aipatutako bi modalitateetan jokatuko diren Euskadiko txapelketez gain, akuatloikoa Plentzian izango da uztailaren 13an eta duatloi krosetakoa Galdakaon irailaren amaieran.

ban Gasteizkoarekin. Aipatutako bi modalitateetan jokatuko diren Euskadiko txapelketez gain, akuatloikoa Plentzian izango da uztailaren 13an eta duatloi krosetakoa Galdakaon irailaren amaieran.

Concepto Egile gero eta sendoago lidergoan

Hamahiru puntu kentzen dizkio Area 99 Zalatorri hirugarren sailkatuari eta hamazazpi Colocolo eta Pinsequeri (berdinduta 4. postuan). Azken jardunaldian areto-foballeko Debabarrenako



Debabarrenako arduradunek mailaz igotzea dute buruan.

lehen taldeak, beste irakasgai bat emanez, 3-6 irabazi zuten Kirol Sport-en kantuan: Alexek eta Unaik binaka gol sartu zituzten eta Davidek eta Fher-ek bana.

Euskal Ligako partiduan, bestalde, Maqcenter-ek 3-2 galdu zuten Eraso Aiararen kantuan: zorte txarra izan zuten Eibarko taldeak, azken gola lau segundoren faltan jaso baitzuten. Michael eta Sergio izan ziren goletzailak.

Astelenak pilota afizionatua eskainiko du gaur

Udaberri Torneoako partidu bi eta Euskal Liga bat izango ditu gaur, 19.15etatik aurrera, jokatuko den jaialdiak. Hasteko, gazte mailakoa, Narbaizak eta Ruizek Zumarragako bikotetari egingo diote aurre; eta amaitzeko, bestalde, Velascok eta Larraurik Legazpikoari, hori ere gazte mailan. Bigarren tokian jokatuko den partidu nagusian, Euskal Ligako bi bikote indartsuen arteko lehia izango dugu, biek ere bost partidutik lau irabazi baitituzte: Deporrek Unamunzaga eta Bengoetxeak Klub Zara-



magako ordezkariak osatutako bikotea izango dute aurrean. Domeka goizean (11.15etan) beste partidu bat izango da Ipuruia kiroldegian: kadete mailan, Arrillaga-Urionabarrenetxea bikoteak Zizurkilgoa izango dute aurkari.

Urbateko igerilariak bikain Gipuzkoakoan

Tolosan jokaturako Gipuzkoako txapelketan, Urbateko igerilariak erakutsi zuten prestaketa bikaina egin dutela orain arteko entrenamendu gogorrek. Horrela, urrezko sei domina eskuratu zituzten Eibarko igerilariak: Markel Alberdik (100 eta 50 libreak) eta Martin Aizpirik (200 eta 400 libreak) binaka domina, Nora Varelak 200 bularrean eta loar Urkirik 100 bularrean lortutakoekin batera. Domina gehiago ere izan ziren: zilarrezko bi eskuratu zituen loar Urkirik, zilarrezkoa eta brontzezkoa Aitzol Arrillagak, zilarrezkoa Nora Varelak eta brontzezko beste bi Markel Alberdik. Infantil mailakoak ez ziren atzean geratu: Unai Azpiazu 2.a izan zen 100 estilotan eta 3.a tximeleta eta 400 libretan, eta Egoitz Blanco 2.a 200 bularrean. Euskal Herriko txapelketa prestatzen dihardute orain. Bestalde, Espainiako autonomia erkidegoen arteko txapelketan hartu zuen parte Ander Izagirre eibartarrak, maila ona emanez eta Euskadirentzat puntu asko eskuratuz.



Zazpigarren garaipena jarraian eskuratu zuen Eibarko taldeak Urdañetaren kantxan. Ez hori bakarrik: Igor Moyua eta Ander San Miguel atezainek lan bikaina egin zuten eta taldeak 14 gol bakarrik jaso zituen. Bihar Anaitasuna hartuko dute Ipuruan eta datorren astean Zaragozara (eibartarrendantik puntu bakarrera dago) joango dira, erabakigarria izan daitekeen norgehiagoka jokatzera.

Eibar Eskubaloia 2. postuan

Iker Martínez jiu-jitsuko Espainiako txapeldun



Eibarko kirolaria podiumaren goi-goian.

Iker Martínez jiu-jitsuko Espainiako txapeldun

Iazko emaitzak hobetuz (brontzezko domina eskuratu zuen) eta infantil moduan bere azken urtea zela aprobetxatuz, Kalamua judo klubeko ordezkariak lan bikaina egin zuen zapatuan, Madrilgo Villaviciosa de Odón herrian jokaturako jiu-jitsuko Espainiako txapelketan. Lehen txandan Kataluniako ordezkariari irabazi zion, jarraian madrildar bati eta, finalerdietan valentziar bat kanporatu ondoren, lurralde horretako beste bat garaitu zuen finalean. Borroka guztietan nagusitasun handia erakutsi zuen Iker Martínezek eta, horrela, 60 kilotik azpiko mailan urrezko dominaren jabe egin zen. Kalamuako judokak Euskadiko selekzioa ordezkatu zuen Villaviciosan.

dar bati eta, finalerdietan valentziar bat kanporatu ondoren, lurralde horretako beste bat garaitu zuen finalean. Borroka guztietan nagusitasun handia erakutsi zuen Iker Martínezek eta, horrela, 60 kilotik azpiko mailan urrezko dominaren jabe egin zen. Kalamuako judokak Euskadiko selekzioa ordezkatu zuen Villaviciosan.

JOSE LUIS LABIANO URIBARRI^{ren}

1. urteurrena (2012-II-17)

"Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza".

ZURE FAMILIAK

Haren aldeko MEZA ospatuko da otsailaren 17an (domeka), 12.00etan, SAN ANDRES parrokan.





Waterpolistak ligako I. mailara igotzeko bidean

Erabakigarria izan daitekeen garaipena eskuratu zuen Urbateko senior taldeak Gasteizen, Lautada multzoko liderrari 8-10 irabaziz. Egindako partidu serioak jarraipena izan dezake bihar Orbea kiroldegian, 14.45etatik aurrera Lautada bera hartuko baitute eibartarrek. Infantil mailako taldeak errazago izan zituen gauzak, Lautadari 33-8 irabaziz. Kadeteek, bestalde, amore eman behar izan zuten Waterpolo Navarraren aurrean: azken laurdena 12nako berdinketarekin hasi bazuten ere, 13-18 galdu zuten azkenean.



Everestera trekking-a ikusgai

Periko Iriondok aurrez urtarrian eskaintako "Ibilaldia Everesteko kanpo basera" lana erakutsiko du berriro datorren eguaztenean Klub Deportiboan, arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

Xakeko talde biak garaile azken asteburuan ere

Jon Arana eta David Pérezen garaipenei eta Julen Garroren berdinketari esker, Gipuzkoako Taldekako txapelketako maila gorenean jokatzen duten Klub Deportiboko xakelariak sailkapeneko 1. postuari heltzen diote; hori bai, puntu erdiko aldea besterik ez dute Alfil, Hondarribi-Marlaxka eta Urnietarekiko. 3. mailako taldeak, bestalde, 4-0 irabazi zion Getariako KETARI, modu horretan lidergoa sendotuz: zazpi puntu eta erdi ateratzen dizkio Santikutz-Legazpiri.




Edu Olabe udan Benasqueko torneooa jokatu zuenean.

Laukotea sendo foball-zaletuko Kirol-Jokoa ligan

Sailkapeneko goienean dau-den lau taldeek euren aldea handitu dute Alkidebarekiko, azken hori gero eta ahulago baitago (0-1 galdu zuen Es-morgaren aurka). Goiko laurak irabazi egin zituzten denak, baina asteburu honetan mugi-

mendua izango da: bihar 12.00etan Koskor eta Duran-goren arteko norgehiagoka izango baita Unben. Garajes Garcia eta Txoko faboritoak dira, bestalde, Azkena Kalton eta Tankemans taldeen aurka-ko partiduetan.



Lau taldeen arteko lehia bihurtu da aurtengo txapelketa.



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
943 201095 Faxa. 943 202564

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MADDI, haraiñegun urtetxo bat egin zenduazela. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, ALAITZ, martitzenian lau urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IRATI, gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JON Kortina, haraiñegun urtebete egin zenduan-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, CLAUDIA (gaur lau urte egitten dozuz) eta NEREA (bost egingo dozuz bixar), zuen urtebetetzietan. Amaia, Beñat eta Naiararen partez.



Zorionak, ENEKO, etzi zure lehelengo urtia egingo dozulako. Segi horren alaitsu. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, printzesa LIBE!!!, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Asko maitte zaittugun aitaxo, amatxo eta Alex.




Zorionak, ELGA, aurreko domekan bost urte bete zenduan-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez eta *keep on rockin*.



Zorionak, IKERTXO, gure bitxiuari!, atzo hiru urte bete zenduazela-eta. Muxu pillo bat etxekuen partez.



Zorionak, MIREN Badiola Albizu, aurreko zapatuan lau urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI Arakistain Mendizabal, domekan hamar urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKAIN, martitzenian sei urte egin zenduazelako. Amatxo, aitaxo eta Anderren partez.



Ongi etorri hillaren 14xan jaixo dan OIER Becana Iglesias-i. Zorionak eta laztan haundi bana amatxo Mari Jose eta aitaxo Migueli.



Zorionak, ANE, YON eta NEREA, martitzenian hirurok urtiak betekoz dozuz-eta. Zuen famelixa eta bikotien partez, muxu mordo bat!!!



zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
15an: 22.30
16an: 17.00, 19.45, 22.30
17an: 17.00, 20.00
18an: 20.30

"El vuelo (Flight)"


Zuzendaria: Robert Zemeckis



(2 ARETOAN)
15an: 22.30
16an: 17.00, 19.45, 22.30
17an: 17.00, 20.00
18an: 20.30

"Holmes & Watson"

Zuzendaria: Jose Luis Garcia



(ANTZOKIAN)
15an: 22.30
16an: 19.45, 22.30
17an: 20.00
18an: 20.30

"La Jungla. Un buen día..."

Zuzendaria: John Morre



(ANTZOKIAN)
16an: 17.00
17an: 17.00

"Blackie & Kanuto" (EUSKERA)

Zuzendaria: Francis Nielsen



BARIXAKUA 15

INDIANOKUA

16.30. Disparate Eguna. Indianokua gaztelekuan.

ANTZERKI JARDUNALDIK

17.00. XI. Giza Irudien erakustaldia. Untzagan eta Toribio Etxebarrian.

SAN VALENTIN

18.00. Txokolate-jana eta opariak, San Valentín ospatzeko. Untzagako jubilatutuek.

DISKO-AURKEZPENA

19.00. Dani Gascón disko berria sinatzen egongo da. 20.00etan kontzertu akustikoa emango du. El Corte Inglés-ean.

ZAPATUA 16

BATZARRA

10.00. Sortu-ren eratze prozesurako azken batzar irekia. Kultur.

INDIANOKUA

17.00. Hiltzailea. Indianokua gaztelekuan.

ZINEA

17.30. Zine emanaldia: "Madagascar 3". El Corte Inglés-ean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantu-zekoen irteera. Untzagarik hasita.

DOMEKA 17

PIANO JAIALDIA

12.30. IV. Elbarko Gazteen Piano Jaialdia, 55 ikasleren eskutik. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

ASTELEHENA 18

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

MARTITZENA 19

IKASTEN

10.00. "Filosofía budista y la personalidad del Dalai Lama", Nerea Basurtoren eskutik. Armeria Eskolan.

IRAKURKETA KLUBA

19.00. Umeen irakurketa kluba, Txabi Arnal Gil-en eskutik. Umeen liburutegian.

HITZALDIA

19.00. "Colelitiasis (piedras en vesícula) y hernia de estómago: nuevos avances en su tratamiento", Eibarko Medikuntza Zentroko Mauricio Uribazo eta Juanjo Martínez sendagileen eskutik. Sarrera libre. Portalean.

EGUAZTENA 20

IKASTEN

10.07. Mendi-ibilaldia: Zumaia. Trena Amañan hartzeko ordua (Ardantzán 10.12etan, Estaziñoan 10.14etan eta Azitainen 10.16etan).

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Hablar y escuchar con eficacia" hitzaldia. La Salle Isasin.

ANTZERKI JARDUNALDIK

19.00. Jose M^a Cornagori omenaldia, Juan Diego Botto aktorearen hitzaldia eta Narruzko Zezen lehiaketako irabazleei saria ematea. Coliseoan.

DIAPORAMAK

19.30. "Ibilaldia Everest-eko kanpo basera". Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

EGUENA 21

IKASTEN

10.00. "Filosofía budista y la personalidad del Dalai Lama", Nerea Basurtoren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKI JARDUNALDIK

17.30 eta 21.00. Zinea: XIII. Asier Errasti Jaialdiko Laburmetriak. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

ODOLA ATERATZEA

18.30. Gipuzkoako odol-emaileen elkartearen odol-ateratzea, odol-emaileentzat. Anbulategian.

hildakoak

- María Gonzalez Marnotes. 86 urte. 2013-II-6.
- Pedro M^a Iñarrairaegi Gomez. 90 urte. 2013-II-6.
- Lazaro Elizaga Orkaray. 85 urte. 2013-II-7.
- Edurne Mendikute Gerrikabeitia. 91 urte. 2013-II-7.
- Cirilo Alba San Miguel. 77 urte. 2013-II-9.
- Ireneo Askasibar Bolinaga. 90 urte. 2013-II-10.
- Concepción Urzelai Lete. 96 urte. 2013-II-13.

jaiotakoak

- Irati García Vigo. 2013-II-6.
- Julen Cruzado Morandi. 2013-II-8.
- Reda Nait Charif. 2013-II-9.

HOROSKOPOA

ARIES

Ez zaude sasoi onean, baina ezin zara beti gustora egon. Gehiago baloratuko dituzu horrela etorkizuneko une onak.

TAURUS

Zerbait erostera zoazen bakoitzean zoroaren pare ipintzen zara. Zergatik? Hurrengoan ez dizu inork lagunduko.

GEMINI

Zer moduz San Valentín egunean? Ai ene! Ez zara oso erromantikoa; horrelakoak egiteko gauza izatea ere!

CANCER

Aratosteetan zure saltsan ibili zara, ezta? Aurpegia ezkutatzearren edozer egingo zenuke. Zenbat Aratoste nahi urtean?

LEO

Zurekin barbarik ez da falta. Mingainari ederki astintzen diozu, baina ezta berririk min horrekin aste honetan jai duzu.

VIRGO

Kolpe gogorra jasoko duzu astelehenean; baina, min fisikoa baino, barrenekoa izango da zurea. Sendatuko zara?

LIBRA

Ez dut ulertzen Oscar saria jasotzeko nola ez zaituzten izendatu. Zure planta guztiekin, Urrezko Globo zuretzat!!

SCORPIUS

Haurrak izango bazinate gisa baziltzate, nor baino nor okerrago! Ez konplikatu gauzak hainbeste eta izan zentzudun.

SAGITTARIUS

Atzera baino, aurrera begiratu beharko zenuke; proiektu handiak baitituzu eta ilusioz beteko dizkizuten lagunkideak.

CAPRICORNIUS

Konpainia onean ibiliko zara datorren astean. Ez duzu bakarrik egoteko une askorik izango: eskertu maitasun hori.

AQUARIUS

Ez duzu zorte askorik izan lehiaketetan, baina badakizu: jokoan zortetik ez badaukazu, maitasunean izango duzu!

PISCIS

Orain dela astebete izan zenuen amets lizun hori betetzeko aukera izango duzu. Ea ametsen bezainbeste gozatzen duzun.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Otsailaren 24ra arte**
"BIDE ZABALAK" hamar artisten erakusketa. Portalean.
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
JOSE LUIS MARTINEZ. "Portugal". Argazkiak. Portalea tabernan.
ISIDRE HUMET. "Insectos". Argazkiak. El Ambigú tabernan.

lehiaketak

- ✓ **Otsailaren 16ra arte**
INDUSTRIA-ARGAZKILARITZA DIGITAL LEHIAKETA.
Lanak aurkeztea eta informazioa: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartean (Isasi, 36).
- ✓ **Otsailaren 17ra arte**
EUSKERAZKO BERBARIK ITSUSIENA AUKERATZEKO.
Lanak aurkeztea eta informazioa: AEK-n (eibar@ae.org) eta Euskal Euskaltegian (euskaltegiaeibar@telefonica.net).
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
MARTXOAK 8-KO EMAKUME LANGILEAREN EGUNAREN lan artistikoen lehiaketa.
Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan.
- ✓ **Martxoaren 12ra arte**
XVI. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA. Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartean (arratekultu@gmail.com edo 943-202299).
- ✓ **Martxoaren 28ra arte**
PORTADA LEHIAKETA. Gaia: XXX. Dia Das Letras Galegas Casa C. de Galicia "As Burgas", Roberto Vidal Bolañoren omenez. Saria: 100 euro. Lanak aurkeztea eta informazioa: casaasburgas@euskaltel.net edo 943-206737

farmaziak

- ✓ **barixakua 15**
EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
- ✓ **zapatua 16**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- ✓ **domeka 17**
EGUNEZ Las Heras Laramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Las Heras Laramendi (Calbetón, 19)
- ✓ **astelehena 18**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 19**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguztena 20**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguna 21**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **barixakua 22**
EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

		3	8		7	4		
4			5		3			8
				9				
6	8			4			3	7
	2						4	
3	9			5			1	2
				1				
2			3		5			9
		8	6		2	1		

SUDOKUA

1	2	8	5	9	7	4	6	3
7	5	6	1	3	4	8	9	2
3	9	4	8	6	2	7	5	1
9	6	1	2	5	8	3	4	7
8	3	5	7	4	6	1	2	9
4	7	2	3	1	9	6	8	5
2	4	9	6	7	3	5	1	8
6	1	3	9	8	5	2	7	4
5	8	7	4	2	1	9	3	6

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
- Aldapa barik bizitzeko aukera ezinhobea. Pisua salgai Fermin Calbetonen. Garaje-trasteroa aukeran. Tel. 646-680445.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 2 logela eta garajea trasteroarekin. Tel. 660-736526.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Tel. 618-354218.
- Errekatxu 3an pisua alogagai (2. solairua). Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. 50 m². Sartzeko moduan. Kalefakzioa etxe guztian. Tel. 615-753100 (Mikel) eta 687-756091 (Mireia).
- Buhardilla alogagai Ubitxan. Igogailuarekin. Atonduta eta bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.
- Bikoteak pisua behar du alokairuan. Tel. 688-867226.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Logela bakarrekoa ahal bada. Tel. 646-662911.
- Esteponan (Málaga) pisua alogagai, martxotik ekainera. Kaiaren eta hondartzaren alboan. Eguzkitsua. Tel. 645-728317 eta 943-201294.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Presazkoa. Tel. 686-420642.
- Senar-emazteek pisua hartu nahi dute Eibarren errentan. Tel. 686-739143.
- Logela bilatzen dut errentan. Tel. 615-303314.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Seat 600 salgai. Egoera ezinhobean barrutik zein kanpotik. Beti garajean gordeta. 4.000 euro negoziagarriak. leirehs@hotmail.com

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Eibar erdialdean. Egoera onean. Tel. 671-258740.

3.2. Errentan

- Aparkatzeko plaza alogagai Txomon. Tel. 658-710898.
- Lokala alogagai Otaola Etorbidean (1. solairua). 25 m². Komun berria. Baita koadrilentzat ere. Tel. 681-303507.
- Garajea alogagai Karmen kalean. Itxita. 18 m². Gauzak gordetzeko tokiarekin. Tel. 630-690317.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajek: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 608-376387.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 600-855686.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta beste edozein lanetarako. Tel. 652-579445.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-354218.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako: zainketa, garbiketa, sukaldean lagundu. Tel. 698-567680.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 680-526228.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-925929.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 608-886701.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 690-064225.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 627-652870.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 639-611454.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Tel. 638-560617.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 672-278569.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, saltzaile moduan eta edozein lanetarako. Komertzio ikastaroa eginda. Tel. 617-800314.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 627-162936.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko (barran edo jangelan) eta altxairgintza metalikoan (aluminioa eta PVC) jarduteko. Tel. 943-257698.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean) eta etxeko lanetarako. Tel. 638-249775.
- Mutila eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta zurgin moduan jarduteko. Tel. 678-087407.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean) eta etxeko lanetarako. Tel. 609-463481.
- Emakumea eskaintzen da gaeuz (21.00/22.00-09.00/10.00) nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 622-726879.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 656-765916. M. Carmen.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-911069.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaeuz ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta obretako peoi jarduteko. Tel. 688-302653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-569998.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta obretako peoi jarduteko. Erizaintzan eta Merkataritzan lizentziatua. Tel. 672-897815.
- Bi lagun eskaintzen dira lan egiteko. Hamasei urteko esperientzia enpresaritza eta kontularitza fiskal eta laboralean. Tel. 617-332310 eta 655-715050.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, 16.00etatik 19.30era arte. Esperientzia. Tel. 690-359554.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 686-052084.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-420642.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Geriatria ikastaroa eginda. Esperientzia. Tel. 680-526228.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta nagusiei laguntzeko. 15.30etatik 21.00ak arte. Tel. 671-478823.
- Neska eskaintzen da administrari jarduteko, saltzaile moduan eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-225189.
- Neska euskalduna eskaintzen da kamarera jarduteko asteburuetan. Esperientzia. Tel. 630'-259800.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-567680.
- Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 13.00etatik 17.00ak arte. Tel. 618-875007.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 629-872270.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko Interna. Tel. 664-009684.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta saltzaile jarduteko. Tel. 688-691544.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-247429.

4.2. Langile bila

- Kamareroak behar dira Eibarko taberna batean. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. Tel. 697-245186.
- Estetizista behar da esperientziarekin. Tel. 943-200700.
- Marxa betearen dagoen negozioaren %50 salgai. Jornada osoko lana izateko aukera. Tel. 653-021169.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Diplomatura eta Lizentziaturako Matematikak, Estatistika eta Kontabilitatea ematen dira. Tel. 685-739709.
- Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketetarako prestaketa, profilak, HABE, EGA. Tel. 620-608065.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Pegorarako eskilarak salbatzeko aparatua salgai. Prezioa adosteko. Tel. 943-200358.
- Jaunartzeko soinekoa salgai. Egoera ezinhobean. Tel. 671-258740.
- Ostalaritzako tresnak salgai negozioa lagatzeagatik: kafetegia, izotz-makina, ... Tel. 665-720977.

bizilekuetan adituak
Diproca

6 ATE: - MARKO berria
2 BEIRADUN - Kromozko ERROSETAK
4 ITSU - Matelux KRISTALAK
- ESKULANA

**12 HILABETETAN ORDAINTZEKO
AUKERA INTERESIK GABE**

Tfnoa. **943 10 83 00** Faxa. **943 10 83 02**

**Etxe erreformatan 30 urtetik
gorako esperientzia.**

ATEAK, ARMAIRUAK, OHOLTZAK, LEIHOAK, etb...



Isasi, 17 - behea - **EIBAR** - eibar@diproca.com



**CPL-n
gaineztatutako
egurra**



**ETORKIZUNeko
ATEAK
GAUR**

**6 diseinu
esklusibo**

**EDOZEIN EREDU:
2650 €
BEZ barne**

**Kalitate handiko
ateak, iraunkorrak,
garbigarriak,
kolorez aldatzen
ez direnak**

Euskararen Transmisioa

III. MINTEGIA

Maiatzaren 7^{an}
(ASTEARTEA)
PORTALEA Kultur Etxean

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak
943-200918
normalizazioa@etakitto.com

**EGUN OSOKO
EGITARAUA**

.....
hizlariak
Soziolinguistika Klusterra

Jean Baptiste Coyos

Urtxintxa Eskola

Iñaki Pikabea

Paula Kasares

Ahotsak.com

Kike Amunarriz





bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75**